


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko abenduaren 9a / IV. urtea / 156. zenbakia

Arte garaikidea berpizkundean?

Equipo Crónica, Campano, Amondarain... Azken hilabeteotan goi mailako artista garaikideen izenak sarri ageri dira Nafarroako egunkarietan, haien lanak Iruñeko erakustaretoetan ikusgai direla eta. Arte garaikidearen berpizkundera bitzen ari ote gara foru hiruburuan? Nondik begiratzen zaion. Hau da, nori galdetzen diogun. Hain zuzen ere, gaiari

buruzko iritzi baikorrak nahiz ezkorrak bildu ditugu eskuartean daukagun alearen barne orrialdeetan. Batzuen ustez, Fernando Frances arte aditua tarteko, bidea egokia da oso eta nabarmen hobetu da erakusketen maila. Pintzel erakustareto-ko Mayorren ustez, aldiz, arte garaikidea ez zaio ia inori interesatzen, eta gero eta jende kopuru urriagoa izaten da arte lanen aurrean.



XOUSE SIMAL

'Ahots berriak' erakusketa, aurtengo maiatzean Bilbon.

GURE AUKERAK

BERTSO SAIOAK

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, abenduak 9, Goizuetan. Bertso bazkari moduan antolatua, eguerdiko 2.00etan hasiko da.

Xabier Amuriza eta Andoni Egaña bertsolariak ariko dira gaur ostirala, abenduak 9, Gaintzako Elkartean. Bertso afari moduan antolatuta, gaueko 9.00etan hasiko da.

Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolarien saio berezia izanen da bihar larunbata, abenduak 10, Elizondan. 'Zazpi eskale bertso berriak pobrezari jarriak' izenburupean, Josu Zabala eta Txapel Okerrak musikariekin batera ariko dira, AEKk antolatuta, gaueko 10.00etatik aurrera.

BESTELAKOAK

EGUNKARIAren jaiadirako sarrerak salgai daude jadanik ohizko puntuetan. Jakina denez, Jaiabenduaren 17an ospatuko da, Anoetako belodromoan. Helduentzako sarrerak 1.000 pezeta erosi daitezke aurretik hartuta eta 300 pezeta umeenak; takillan 1.200 pezeta. Toki hauetan daude salgai: Iruñeko Kattu, Txorimalo eta Basajaun tabernetan eta Xalbador liburategian; Atarrabiako Ostatu tabernan; Barañaingo Refugio Tabernan; Burlatako Zumai tabernan; Lizarrako Katxetas tabernan; Berako Errekalde ostatuan; Tafallako Azoka tabernan; Altsasuko Biltoki tabernan; Leitzako Txoko tabernan; Etxarri-Aranazko Xapatero tabernan eta Kaxeta liburudendan; Lesakako Matxinbeltzenea euskaltegian eta Elizondoko Intza tabernan.

'Arrazakeria Euskal Herrian' gaiari buruz mintzatuko da heldu den ostegunean, abenduak 15, Emilio Lopez Adan 'Beltza' Lesakan. 'Abenduan kulturaz blai' Matxinbeltzenea euskaltegiak antolatutako kanpinaren barruan, arratsaldeko 7.00etan hasiko da.

'Herensuge' izeneko muntaia berria aurkeztuko du heldu den ostegunean, abenduak 14, Txotxongillo taldeak Iruñean. Hiriko udalak antolatutako euskarazko programazioaren barruan, bi saio eskainiko dituzte, arratsaldeko: lehena 5.00etan eta bigarrena 6.30etan.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Danone itxiko omen

Itoitzi buruzko eztabaidan, ekologiaren argudioak bukatzen direnean, denek hasieratik pentsatu baina eztabaida oso luze jo arte inor esaten ausartzen ez den argudio goren atera ohi da: 'Eta, zer arraio, Itoitzen lau katu baizik ez dituk bizi'. Batek pentsatzen du or-

Gazteak direnei iruditzen zaie mundua beti izan dela haiek ezagutu bezala. Urteak aurrera ahala gauzen aldaketaz ohartzen gara, gertaeren ikuspegi historikoaz. Ikuspegi horrek argi erakusten du Nafarroa ez dela beti izan gaurkoa bezalako; Itoitzen, orain ehun urte, lau katu

kalerria Irratiak jarritako errekurtsioa, 'es discriminatorio para la mayoría de los ciudadanos... porque no hay ningún vasco parlante de origen en la ciudad' esanez, beste astakeria batzuen artean.

Nafarroako Ipar Mendebaldeko industrian —'zona vasco-



duan argudio horri buelta emateko nolabaiteko giza-ekologia erreibindikatu behar dela; alegia, larria da hegaziak desagertzeari berezko ingururik, baina are larriagoa da jendearentzako bizitoki izandakoak jende horren seme-alabentzako ezinbiziak izatea. Nafarroan bada halako makina bat: Longida, Urraul, Artze, Aezkoa, Saraitzu, Erronkari... Nafarroako Ipar Ekialde osoa. Politikoa lurraldearen antolamenduz eta lurraldeen arteko orekaz mintzatzen dira.

baino askoz gehiago bizi ziren, Nafarroa osoan orain bizi garen laurdena bizi ziren bitartean. Halaxe Longidan, Urraulen, Artzen, Aezkoan, Saraitzun... Nafarroako Ipar Ekialde osoan: haiek hainbat bider gehiago izaki, Nafarroa guztia laurdena zen.

Ikuspegi historikoak erakusten du, halaber, Iruñea eta Iruñerria euskaldun izan zela, proportzio nabarmenean, XIX. mendea nahikoa aurrera joan arte. Egun hiru epailek, sententzia iraingarri baten bidez, ukatu dute Eus-

fonoa' deituriko hartan—ia mila lanpostu galdu dira aurten. Azkenak Danone-n galduko—omen—diren 174 horiek ditugu. Lanik ez den tokian ez da bizimodurik. Gauzak txiripaz gertatzen ez direnez, hainbeste urte barru, agian, gaur Itoitzen edo Euskalerrira Irratiaren kasuetan erabiltzen dituzten argudio berberak erabiliko dituzte Ultzaman edo Lesakan edozer gauza egin edo ukatzeko.

Horrela ikusita ere kezkarria da Danone ixtea.

ASTEKO PERTSONAIAK



Tomas Urzainki
Eusko Ikaskuntzako presidentea

Negarrez azaldu zen Telenavarrako kamaren aurrean Nafarroako Eusko Ikaskuntzako presidentea, Iruñeko Erret Jauregiaren lanak zirela eta. Ostiralean sartu zuen Nafarroako Gobernuak aztermakina Alde Zaharrean dagoen eraikin historiko honen barruan, «dena erortzeko zuen arriskuarengatik». Tomas Urzainkik, beste erakundeekin batera, goiz horretan emana zuen prentsaurreko bat azaltzeko ondare historiko garrantzitsua botatzen ari zela, baina aztermakinak aurrera egin zuen, lamentuak lamentu. Urzainkiren ustetan lanak ez legezkoak dira, «ondare nazioanala izanik, ezin delako ukitu ere egin, kontserbatu baizik». Nafarroako Gobernuak badu asmoa bertan Artxibo Orokorra paratzeko, eta horretarako hiruzpalau urte beharko dira.



Jose Mari Bakero
Futbolaria

Goizuetarra historia idazten ari da Barcelona futbol taldean. Bartzuek Neeskens jokalaririk holandarrak utzitako arrastoa gainditu duela diote, eta, behintzat, askok gogoratuko dute Europako Koparen barruan egindako lanarengatik eta sartutako gol erabakiorrengatik. Asteazkenean izan zen horietako azkena, bederatzi minutu falta zirela hurrengo faserako burukada sarean artera bidali zuenean, ikusgarri. Historia kontuak labainkorrak badira ere, inoizko euskal jokalaririk onenetakoa—behintzat erabakigarrietakoa—izango dela esateak ez dirudi gehiegikeria. Ez dagoen taldean egonda eta egiten duen papera eginda. Gainera, oraindik zenbait urte gelditzen zaizkio Jose Mariri.



EUSKARA

Irurtzungo udalak eta koordinatzaile kulturalak antolatutarik, eta Nafarroako Gobernuko laguntzarekin, Euskararen Astea burutzen ari da egun hauetan Irurtzunen. Joan den astelehenean hasita, igandera arte iraunen du, ekitaldi ezberdin antolatu dituztelarik. Gaur ostirala, helduentzako antzerkia izanen da, Sambhu Teatro taldearekin. 'Printze txikia' izeneko obra taularatuko dute, arratsaldeko 8.00etatik aurrera, Kultur Etxean. Bihar, berriz, kantaldia eskainiko du Mikel Elizaga abeslariak, hau ere, aurrekoa bezala, Kultur Etxean, eta arratsaldeko 9.30etatik aurrera, Herri Afaria dago prestatua Iratxo Elkartean. Apuntatu nahi duenak Iratxon bertan, Larrazpin edo Kultur Etxean egin dezake. Igandera-ko utzi dute haurrentzako ekitaldia, astegunetan helduetzako izan baitira guztiak. 'Pino-txo' izeneko antzezlan taularatu du Antzezizuna taldeak arratsaldeko 5.00etatik aurrera. Hau ere Kultur Etxean izanen da eta espreski bost eta hamabi urte bitarteko haurrentzako zuzendua dago.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiraleri, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztiak gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritzak, ohiturak...



Donibane Garazi

Goizueta

Navarriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

II. Bertsolari Xalto Saria

P.U. / IRUNEA

Begia begi truk

II. Xalto Saria ospatuko da heldu den larunbatean, Zortziko Ttikia elkarteak antolatuta. Iaz hasitako bideari jarraipena emanez, 14 eta 25 urte bitarteko Nafarroako eta Iparraldeko bertsolariak parte hartuko dute, eta guztira 16 gaztek eman dute jada izena.

Zortziko Ttikia elkarteak iaz sortu zuten Nafarroako bertsolari gazteek, eskola mailatik helduen mailara dagoen salto hori bete nahian, eta orduan azaldu zuten urtean gutxienez hiru alditan topaketak egiteko asmoa. Horretarako bertsolari ezagunen laguntza izan zuten, «gazteena baita bide berria eta bide berria egiteko teorizazioa behar delako». Helburuak, beraz, Nafarroako bertsolarietan bide berriak jorratzea, gazteen topagunea izatea, eta eskolarteko txapelketaren eta txapelketa nagusiaren artean dagoen hutsunea betetzea. Gustukoa izan zen, nonbait, lehen esperientzia, aurtien iaz baino gehiago izango baitira Goizuetan.

Kanporaketa goizez izango da eta saio nagusia, edo finala, arratsaldeko 6.00etan. Saio nagusiarikin batera Xalto Bertsopaper lehiaketako sariak emango dira. Egin beharreko lana ondokoa izango da.

Kanporaketan, agurra, ofiziala bina bertso zortziko handian; lau oinak emanda bertso bat osatu zortziko txikian; bukaera emanda bertso bat zortziko handian, eta gai bati buruz bertso bat, doinu eta neurri librean.

Doneztebe

Arkuperen bilera orokorra asteazkenean

IRUNEA

Arkupe Baztan-Bidasoa eta Leitzaldeko jubilatuen elkarteak aurtengo ekitaldien balorazioa eta balantze orokorra egingo du heldu den asteartean, hilak 13, Santa Luzia egunean. 2.300 erretiratu inguru biltzen duen elkarteak Doneztebeko zineman izanen du topagune astearte goizerako, mezaren ondotik, eta bertan aurrekontua aurkeztu eta onartuko da, egokia irudituz gero.

Ondoren, bazkaria izango dute bakideek Bordatxon, eta gero, gazteak direnez gero, dantzaldia. Elkarte hau Nafarroako handienetakoa da, eta ezagun askoa da inguruan, egiten ari den lanarengatik.

Zapateria kaleko egunkari atzerakoiak duela gutxi karrikatutako inkestaren arabera, emakumeek gizon bat lehenbiziko izaten dutelarik lehenik eta behin begietara egiten diote so. Bada, ez dadila inor bere begien xarmaren arabera gehiegi alaitu edo goibeldu, hauteskunderen atarian porrotaren beldur den politikaria bezala, aipaturiko inkesta batere fidagarria ez dela esaten baitizuet nik. Eta nirea ez da politikariena bezalako lore joko hutsala, badaukat eta nire ustea ustela ez dela erakusten duen froga argi bezain garbia.

Joan den astelehen gauean, biharamunean Espainiako Konstituzioaren eguna ospatzeko zela kontuan hartuz, parrandan ibiltzea zilegi ote zen eztabaidatzen aritu nintzen lagun min batekin. Nik baietz eta hark ezetz, basoa gora eta basoa behera, konturatu ginenerako ez zegoen atzera egiterik, mozkortzen hasiak baikin. Gauzak horrela, kasko ka-



rratu samarra edukitzeaz gain begi berde-argi-liluragarriak daukan lagun antikonstituzionalak algara bederen patxarana bezalako edari euskaldun batekin segitzea ebatzi zuen.

Jakina, goizeko laurak aldera Garazi tabernara heldu ginelarik, lagun patxaranzaleak bare bateh tamainako legatza zerañan bizkar gainean, eta zama horren pean kostata eusten zion zutik. Zorionez, mahaitxo baten inguruan esertzeko txokoa lortu genuen.

Eseri berriak ginela, 'Bedertzi aste t'ardi' pelikulako kanta entzuten hasi zen. Supituki, hilik zirudien laguna, Lazaro bezala, zutitu egin zen, eta mahai gainean strip-tease egiten hasi zen. «Begi polit horiekin, kilo batzuk sobera baditu ere inor ez da kezkatuko», pentsatu nuen inkesta gogoratuz. Inork ez zuen, baina, «Begi polit hori, segi, segi!» oihukatu, eta bai, berriz, «Hoa hemendik urde potolo hori!». Nire begi marroi zatar gorrituekin laguna tabernatik nola kanporatzen zuten ikusi banuen ere, pozik sentitu nintzen.



Iparraldeko txapeldunak bildu dituzte lehiaketan.

Hoberenak Garatenean

H.G. / DONIBANE-GARAZI

Jean Claude Biscouby, Philippe Karrikart, Manuel Martiarena eta Jean-Philippe Bideondo Berezko pilotariak aurrez aurre ezarri dituzte Donibane-Garaziko Garat trinketean. Lehen Super Prestigioa deitu duten buruz buruko txapelketa joan den urtean eginako jokoari esker gailendu ziren lau pilotari hoberenak hartuz osatu dute, eta emaitza biziki interesgarria gertatzen ari da.

Joan den larunbatean jokatu ziren lehendabiziko bi partidak, eta jadanik txinpartak ateratzen hasi ziren. Karrikart eta Bideondo bata bertzearen aurka jo eta su aritu ziren, azkenean Philippe

Karrikartek 50-49, puntu bakarez, irabazi zuen. Karrikartek errana zuen txapelketaren aitzinetik, une onean egonez gero garaipenak lortzen ahalko zituela, eta larunbatean hitza bete zuen, eta aurreko urteetatik faboritua izan den Jean-Philippe Bideondo gainditu.

Bigarren partida Biscoubyk eta Martiarenak jokatu zuten eta arratseko beste ezustekoa izan zen. Jean Claude Biscouby bikoteetako partidetan anitzetan gaindiezina izan bada ere, buruz burukoan arazo anitz izan ohi ditut beti, batez ere moral aldetik. Baina txapelketa honetan guztiek hiru partidak jokatu beharra dutenez eta zuzeneko kanpora-

tzetik ez dagoenez, Jean Claude Biscoubyk presio gutiago zuen lehenengo partidarako, eta bereak eta bi egin zizkion aurretik faboritotzat zen Martiarenari, eta 50-37 irabazi zuen.

Heldu den partidak igandean, abenduak 11, jokatu dituzte. Arratseko lauretan Martiarenak eta Bideondok jokatu dute, eta bortzetan Biscoubyk eta Karrikartek. Ez dago deus erabakirik oraino, eta ikuskizuna segurra da. Finalen aurretiko azken partidak, berriz, abenduaren 25ean jokatu dira. Finalistak partida guztiak zenbatuta tanto gehien izanen duten aitzineko bi pilotariak izanen dira, eta urtarilaren lehenean jokatu dute.

Araitz-Betelu

Kultur astea ilargiari buruzko hitzaldi batekin abiatuko da

P.U. / IRUNEA

Araitz-Beteluko kultur astea iraganen da heldu den astetik aurrera, hilaren 18ra bitarte, bertako Euskara Batzordeak eta Astunalde Kultur Taldeak Kirol Batzordearekin batera antolatuta. Hitzaldiak, diapositiba emanaldiak, musika, herri kirola, afariak... denetarik izango da bi udalen eta Nafarroako Gobernuaren laguntza izan duen aste honetan.

Heldu den asteazkenean, hilak 14, hitzaldi batekin zabalduko da kultur astea, Jakoba Rekondok 'Ilargiaren eragina naturarengan eta gizakiongan' gaiaz emango duen hitzaldiarekin hain zuzen. Gaintzako elkarteak izango da,

gaueko 9etatik aurrera. Ondoren gaztainak eta sagardoa izango dira guztiendako. Ostegunean, hilak 15, beste hitzaldi bat izango da: 'Ekologia eguneroko bizitzan', Salome Iribarren Anat-Lane taldekoak emana. Uztzegiko elkarteak izango da, gaueko 9etan, eta ondoren, gazta, intxaurrak eta menbriloa izango dira dastatzeko.

Ostiralean, hilak 16, Inurrategi anaiek K-2 mendira uda honetan egin zuten espedizioari buruzko diapositiba emanaldia eskainiko dute, Azkarateko elkarteak. Gaueko 10etan izango da, baina aurretik afaria prestatuta. Larunbatean, hilak 17, haurrentzako ekitaldi bat prestatu dute Beteluko eskoletan, 6etatik au-

rrera. 'Zirko ttipia' taldearen eskutik, pailazoak, malabaristak, magoak, sorpresak izango dira, eta ondoren txokolatada. Egun berean, Atallun, txiste afaria izango da, Guillermo Sarasola eta Juanito Mendizabalekin, eta ondoren, trikitixa gaupasa, Gozategi anai-arrebekin.

Igandean, hilak 18, amaituko da aste hau, Lekunberriko abesbatzak eskainiko duen musika saioarekin. Arribeko elizan izango da, goizeko 11etatik aurrera, eta ondoren, Betelun, errelebo proba izango da korrikalarien artean. Parte hartuko dutenak: Anjel Buldain, Pako Aiestaran, Rafael Etxarri, Andres Arraztio, Jose J. Okiñena eta Agustin Argiñarena.

Arte garaikidea: gora ala behera?



Batzuen iritziz, arte garaikidea gorantz doa Iruñean. Gero eta erakustareto gehiago, erakusketa franko, jende andana... Beste batzuen aburuz, aldiz, maldan behera. Fernando Frances da, neurri batean bada ere, egoera honen sortzailea, Iruñera etorri zenetik arlo honen nola-baiteko monopolioa eskuratu baitu. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erakustareto programazioburu eta Iruñeko Udalaren arte garaikideko erakusketen antolatzaile den honek auziari buruzko ikuspegi baiko-rra eman digu. Aldiz, Jose Luis Mayorrek, Pintzel galeriako buru eta urte andana hiriburu arte garaikidearen munduan murgildurik eman duen gizonak, ikuspegi ezkorra eskaini digu. Halaber, benetako berpizkunde sendoa bermatzeko erakunde publikoek zein pribatuek segitu beharko lituzketen bideak azaldu dizkigute biek.



NUPEK eta Iruñeko Udalak nabarmen egin dute arte garaikidearen alde.

JOXE LACALLE

Frances: «Gorantz ari gara»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

Azken bi urteotan Nafarroako bi erakunde publikok, Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) eta Iruñeko Udalak hain zuzen ere, arte garaikidearen alde egin dute apustu. Gizon bera izan da bi apustuon gibeletik, Fernando Frances, Santanderko Gestion Cultural enpresako burua alegia. Irakasle ohia eta 'ABC cultural' eta beste hainbat argitalpenetako kolaboratzailea, Santanderko artezaleak denboraldi honetan NUPEK Karlos III. etorbidean duen erakustareto egitaraua osatu du alde batetik, eta Udalaren arte garaikidearen erakusketak ere antolatu ditu, bestetik.

Francesek duela lau zapabost urte izan zituen Nafarroako erakunde publikoekin bere estreinako harremanak, penintsulako iparraldean La Caixarentzat lanean hasi zela. «Nirekin», azaldu du, «batek daki zer-nolako arrazoiak zirela medio Iruñera ordu-ra arte ekartzen ez ziren erakusketak ekar zitzaketela ikusi zuten». Orduan hiriburua, arte garaikideari dagokionez, «basamortu tristea» zela dio. «Javier Morrasede aspaldian lan mardula egina zeukan alor honetan, baina inork ez zuen bere lekukoa jaso, eta dena hilik geratu zen».

Programazioaz arduratzen den aditu honen ustez, Iruñeko Udalak eginkizun garrantzitsua izan du arte garaikidearen nola-baiteko berpizkunde honetan, azken urteotan erakusketa garrantzitsu anitz antolatu baititu. Dena dela, Estatu osoan oihartzun handiena lortu duen ekimena iazko Margolaritza Bienala izan da. «Orotara 700 margolarik hartu zuten parte horretan, baina kopurua ez da garrantzitsuena, garrantzitsuena da horien guztien artean bazirela 250 inguru zirkuitu nazionalen mu-

gitzen direnak». Hain zuzen ere horrek lortutako arrakastaren oihartzunak eraman zituen NUP eta Arteclio galeria pribatua haien aretoen programazioa Francesen esku uztera.

ARLO PUBLIKOA ETA PRIBATUA

Hala erakustareto publikoekin nola pribatuekin lanean ari den Francesek dioenez, arte garaikidearen alorrean erakunde publiko eta pribatuen lanak osagarria izan behar du. «Duela gutxi, esate baterako, Madrilgo Reina Sofia Museoak kritika bortitz anitz jaso zituen kanpoko artista asko ekartzen ari zelako, eta espainiar arteari laguntzarik ematen ez ziolako. Besteak beste, hori dela eta akitu dute Maria Corral. Madril etaartzelona baziren zenbait erakustareto pribatu kanpoko artistak ekartzen ari zirenak. Zer dela eta? Administrazioetik artista kanpotarren lana

bultzatzen ari zirelako. Oso zaila da erakustareto pribatu batek Administrazioaren sostengua ez daukan arte moeta baten alde apustu egitea, finean pertsona baten dirua jokoan dagoelako».


Ildo horri helduz, erakunde publikoek, hau da, udal, diputazio, unibertsitate eta museoek badaukatela arriskatzeko parada, eta haiek arriskatu behar dutela iritzi dio. «Beraiek arriskurik ez hartzea abangoardiako artisten kalterako litzateke. Administrazioek arte garaikidea ezagutarazi beharko lukete. Ez lukete, bakarrik hemen egiten dugun arte garaikidea ezagutarazi beharko. Horretaz landara, munduan egiten ari dena zabaldu beharko lukete. Horrek nabarmen erraztuko luke kolezionista pribatuek arte garaikidean zer egiten ari den jakitea. Modu horretan hemengo artista gazteek eta horren gazte ez direnek egiten dutena askoz hobeto ulertuko lukete».

Teoria hori guztia Iruñera ekartzen badugu, batetik Unibertsitateak abangoardiako artean, eta bestetik Udalak maila aski garrantzitsuko erakusketak antolatzen egin dezaketen lana oso garrantzitsua dela nabarmendu du Santanderko arte kritikariak. Bestalde, beste erakunde batzuek ere hartu beharko eiz lukete parte horretan, besteak beste, Nafarroako Museoak, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Aurrezki Kutxak eta Iruñeko Udal Aurrezki Kutxak. «Hor arazoa da horien guztien atzetik interes pertsonalak daudela, eta bakoitza bere interes pertsonalak defenditzen saiatzen dela, baina horiek guztiek bat egiten balute nik uste dut arte garaikidearen alor asko lantzerik izanen luketela, eta bakoitzak bere alor propioa eduki lezakeela».

Erakustareto pribatuei dago-kienez, bestalde, lana aski ongi egiten dutenen artean lauren izenak aipatu ditu Francesek: Kribia, Helene Rorryck, Pintzel eta Arteclio hain zuzen ere. «Bakoitza oso maila ezberdinean mugitzen da, baina hor dira».

OHITURA EZA EZ DA OZTOPO


Arte garaikidea, gehienetan bederen, ez da ulertezko. Bestalde, Iruñeko arteza-leek ez daukate, oro har, arte garaikidea ikusteko ohiturarik, orain arte gutxi izan baitira horretarako izan diren paradak. Hala ere, Francesen irudikoz hori ez da inolako arazoa. «Egin dugun azken erakusketan bikoiztu egin dugu joan den denboraldiko lehendabiziko erakusketa ikustera hurbildu zirenen kopurua. Zer esan nahi du honek? Bada, zalantzarik gabe jendea ez dela batere alua. Jendeari programazio serio, iraunkor eta ez ohizkoa eskaintzen diozunean, hasiera batean harrera ez da oso bera, baina denbora pasa ahala jendea gauza berri horretara ohi-tzen da, eta harrera bera eskaintzen dio».



Fernando Frances, Donostiako erakusketa batean.

ANDER GILLENIA

Arte garaikidea:  gora ala behera?



Zapateria kaleko erakustaretoa da garrantzitsuenetakoa.

JOXE LACALLE

Mayor: «Maldan behera goaz»

J.K.L. / IRUNEA

Jose Luis Mayor Abejeras karrikako Pintzel galeriako burua ez dator Fernando Francesen baikortasunarekin bat. Haren hitzen arabera, erakunde publikoek azken bi urteotan egin duten lana ez da, inondik inora, Iruñean arte garaikidearen lana bizkortzen ari. «Arte garaikidea gurean maldan behera dabilela iritzi diot nik». Hori azaltzeko, lehenik eta behin kasuistikara jo

zuen, jesuita bailitzen. «Oraintxe bertan, esate baterako, Eguberriak gainean ditugula eta erakusketa figuratiboa jarri dut ikusgai, inor gutxi hurbiltzen baita arte garaikidea ikustera, eta inor ere ez arte garaikidea erostera». Horren gibeletik, argudio sakonagoak eman zituen. «Iruñea gero eta hiri atzerakoiagoa da, gero eta *karkagoa*, eta hemengo jendea ez zaio gaur egungo margolariek egiten dutena batera interesatzen».

Pintzel galeriako motorearen aburuz, NUPEk eta Iruñeko Udalak antolaturiko erakusketara hurbiltzen den jende kopuru murrizta egun arte garaikideak bizi duen egoera latzaren adierazgarri ezin hobea da. «Ez dira publiko berria sortzen ari, antolatzaileek beraiek eskaintzen dituzten datuek kontrakoa pentsaraz lezaketen arren. Eskolan lan bat egin behar dutelako bertaritzen diren eskolakumeak, meza-ra joan ostean kasualitatez hur-



Gero eta erakustareto gehiago dago Iruñean.


JOXE LACALLE

biltzen diren agure aspertuak eta konfunditurik sartzen diren despistatuak alde batera uzten badituzu, bertaritzen direnen kopurua negargarria da».

Erakunde publikoen jarrera horren zergaitia argi eta garbi dakusa Mayorrek: «Erakustareto-tara inor hurbiltzen ez bada ere,

oso ongi geratzen da arte modernoa ekartzen dela esatea». Hala ere, ez dago ekimen horien kontra. «Printzipioz, egiten dutena ongi iruditzen zait, eta gainontzeko erakunde publikoek bide bera hartuko balute asko poztuko nintzateke. Hala ere, kanpoko egileak besterik ez dituztela ekartzen esan beharra dago. Niri ez zait gaizki iruditzen kanpoko artista baten lanak Iruñera ekartzea, gehien bat lan horiek salduzinak baldin badira. Hemen, baina, badira maila bereko lanak egiten dituzten artistak, eta horiei ez diete aukera bakarra ere ematen. Bertako artista on horiei bertan erakusketak egiteko aukera eman beharko liekete».

Haren ustez, erakunde publikoek bestelako bidea hartu beharko lukete arte garaikidearen onerako. «Esan bezala, hemengo jendea hemen erakusketa zabaltzeko aukera ematea ongi legoke, baina horretaz landara hemengo jendea hemendik ateratzeko aukera ematea ezinbestekoa da. Beka gutxi ematen dira, eta ematen direnak oso txikiak dira. Hemen artista on bat baldin badago, artista horri beka ona eman behar zaio, hemendik kanpo ikasi beharrekoa ikasteko parada eduki dezan». Eta argudioa sendotzeko, berriro kasuistikaz baliatu da. «La Cava taberna galeria, egun whisky marka baten laguntzaz milioi erdiko beka eskaintzearen aukera aztertzen ari da. Horrek beka ematea horren zaila ez dela argi erakusten du. La Cava milioi erdia ematen badu Gobernuak 10 milioi eman beharko litzuke, eta, horretarako sosa soberan badituzte ere, ez dituzte ematen».



Bilboko Rekalde Aretoko erakusketa bat.

XOUSE SIMAL



XAKEAN



Nafarroako Taldekako Txapelketan, 1. mailako joaneko azken neurketako partida, 1994ko abenduaren 3an jokatu.

Santiago Remacha, 1.980 ELOkoa (Iruñeko Runa 'B')- Xabier San Martin, 1.750 ELOkoa (Iruñeko Arrano Elkarte).

1.e4, c6; 2.Zc3, d5; 3.d4, e4; 4.Ze4, Af5; 5.Zg3, Ag6; 6.Ac4, e6; 7.1Z-e2, Ad6; 8.h4, h6; 9.Zf4, Af4; 10.Af4, Zf6; 11.De2. Ikus koadroa. Endrokoa egiteko tenorea da. Gero, txuriek endroke luzea hautatuko lukete, eta izugarritzko borroka sortu. Baina ez da hori gertatuko. Zuhurgabeziak jota, beltzek peoia jatea aukeratuko dute. 11..., Dd4; 12.Ae5, Dd8; 13.Gd1, bZ-d7; 14.Ad6. Ederki, jokaldi hau! Erregea harrapatuta geratu da, posizio ez erosoan. 14..., Da5 xa; 15.b4. Taularen kontrola txurien dela nabarmena da. Damak ez du leku onik.

15..., Da3; 16.0-0-0-0. Azkeanean, alde bietan endoreka, baina ez aurrikusi bezala. Dena den, 'd6-ko' alfilak presio izugarria egiten du. 17.b5, Da4; 18.c6, Dc6; 19. Ab5, Dc3; 20. Gb1, Zb6; 21.Gb3, Dd4; 22.Ae5, Dc5; 23.Gc3. Damaren noragabeko bidea bukatu da. Peoia harrapatu izan balu, matea etorriko zen. 23..., Dc3; 24.Ac3, Eb8; 25.h5; Ah7; 26. Ae5 xa, Ea8; 27.Df3, Gd5; 28.Af6, f6; 29.Df6, Gc8; 30.c4, Zc4; 31.Ac4. Pieza irabazi dute, 'Dh8' mate mehatxuatik. 31..., dG-c5; 32.Ab3, Ad3; 33.Gd1, Af5; 34.Zf5, Gf5; 35.Gd8, fG-c5; 36.Gc8 xa, Gc8; 37.Df7. Beltzek etsi zuten, hasieran jandako peoi hura oraindik buruan zebilkiela.

Klaustrofobia eta agorafobia

Galdera: Nik klaustrofobia daukat eta nire senarrak agorafobia. Oso leku gutxitan ibil gaitzke larrutan. Arkupeetan, zubipeetan, geltokietan eta abar. Zer egin genezake? Besterik gabe, astero zure aholkuak faltarik gabe irakurtzen dituen eta negar batean bizi den andrea.

Erantzuna: Ene adiskide maita. Lasai zaitez, ematen duena baino askoz ere irtenbide errezagokoa da afera. Klaustrofobia eta agorafobia daukate oinarri arazo endonomatikoetan. Klaus Kinski dotore alemaniarrek ahalegin bixiak egin zituen klaustrofobia eta agorafobia sortzen dituen birusak zerkatzeko. Jakina, zuei teoriak


bost axola zaizkizue, zuek irtenbide praktikoak nahi dituzue. Ongi. Hasteko esango genizueke joan beharko duzuela zuen herriko Osasun Zentrura eta lizentzia bat eskatu, halako leku publikoetan larrutan ibiltzeko baimena eman diezazuten. Trabarik ezarri gero, etorri zuzenean niregana. Txakurrek hiriko belardietan kaka eta pixa egiten duten bitartean, lotsagarria da eskandalu publikotzat hartu izana zuen patologia. Gainera, nik alkate aunitz ditut adiskide eta aipatuko diet zuen kasua.

Besterik gabe, egon bizkor. (Oharra: Zuek al zineten joan den ostiralean Belateko tunelaren sarpidean larrutan ibiltzeagatik obrak geldiarazi zenituztenak?)

Mendian gora

Goiz eguzkitsu batean esnatu nintzen, eta nere ingurura begiratu nuen. Nere gela beti bezala ikusten nuen, beti bezain nahastuta ikusi nituen gauza guztiak. Nere larrurako pentsatu nuen egun aproposa zela mendira ibiltzera joateko eta bi txakurrak harturik mendira joan nintzen eguna pasatzera. Bi txakurrak, beti bezala, aurrean zihozten bat toki guztietan sudurra sartzen eta jolasten, eta bestea pausoz pauso, harroharro.

Oso paisaia polita zen, mendiak, zu-



Ainhoa Ibarrola

(BARAÑAIN)

zen polita paisaia arraro guztiak ahazten zitzaizkidala.

Askatasun osoa sentitzen nuen nere gorputz osoan barna, eta sentsazio hark beti jarraituko zuela pentsatzen nuen, ez zela inoiz amaituko. Bi txakurrak eta nik bide harritsu horretan aurreran jarraitzen genuen. Eta oso urrun ikusten genuen tontor hura bapatean gure hanka azpian ikusi genuen. Han denbora bat eman genuen eserita, paisaia ikusten. Handik goiti oso handia nintzela iruditzen zitzaidan, eta nituen arazoak huskeriak iruditzen zitzaizkidan. Han goian ordu batzuk egon ondoren, beheruntz jaistea erabaki



haitzak, loreak... eta abar ikusten ziren eta batzuetan elur pixka bat ere ikusten zen, negua pasa zela eta udaberria hasi zela adieraziz. Usaina oso ona zen eta loreen, pinuen, erreken eta mendiko beste gauza politen usainak nahasten zitzaizkidan sudurrean. Oso usain atseginak ziren benetan. Ordu batzuk ibiltzen egon ginen, gure atzean baserri handiak, txikiak, altuak, baxuak utzirik. Asko ibili ginen arren ez nuen nekerik nabari, hain bait

nuen. Etxetik gero eta hurbilago nengoen eta nere askatasun eta zoriona desageritzen hasi ziren. Arazoak berriz nere burura itzultzen hasiak ziren, eta txakurrak ere tristeago eta polikiago zebiltzan. Etxera iritsi nintzen eta isil-isilik afaldu nuen Berehala ohera sartu nintzen. Oso triste nengoen menditik bueltatu nintzelako eta berriz beste jendea bezalako sentitzen nintzelako, ez nintzelako espziala.



«Mundu honetan ez dago puta haundiagorik bere ondrtasunarekin komertzializatzen duena baino».

Galdera: Elias Beorburu de Berribehiti txit gorena. Ni, eta ez dut izkututzen, makina bat urtetan puta aritu naiz. Baserritar atsegin bezain maitekor batekin ezkondu nintzen. Zoriontsuak gara, eta sei seme-alaba ditugu. Lehenagoko bizimodua erabat atzenduta daukat eta saiatu egin naiz nire atzoa atzentzen, baina, malkoak darizkidala esaten dizut hau, herrian ez naute onartzen. Zer pentsatu behar dut?

Erantzuna: Ene adiskidea. Oraingo bizia oso zoriontsua dela diozu, bada, eutsi horri eta kitto. Gogoratu, bestalde, Klasikoak zioena. Zergatik ote hainbeste kontu ondreakin, ipurtzulotik hain hurbil baitago? Are gehiago esan behar dizut, eta orain zu mezpreatzen zaituzten pertsona horiei ari natzaie, badakizue zergatik mespretxatzen duzuen ene adiskidea? Nik esango dizuet. Nahi baldin ba-

duzue latinez ere, gaia ez baita oraingoa. Mundu honetan ez dago puta haundiagorik bere ondrtasunarekin komertzializatzen duena baino. Ez dago lizunkeriarik hori baino zakarragorik. Besterik gabe, zure esanetara dagoen dotore hau.

Galdera: Ba al dago euskal arrazarik? Güenagako alkatea.

Erantzuna: Hitz gutxitan esanda, bai. Badago. Eta ez bakarrik bat, baizik eta hogeiren bat. Txarrena, dudarik gabe, zortzigarrena da. Amery Picaud-ek XII. mendean ezagutu zuena. Dakizuenez, Estellerrian galdetu zuen ea iturri batek edan zitekeen. Seigarren arrazatako euskaldun haiek ez zioten esan hori gatzaga zela eta kakalari batean joan zen Done Iakueraino. Ez harritu gero guregandik sekulakoak esan izanaz. Seigarren euskal arraza hau, ez dago esan beharrik, da lan gehien ematen diona Osasunbidari.



Epaia Euskalerrria Irratiak lizentzien kontzesioa zela eta paratu zuen errekursoaren ondorioa izan da.

Nafarroako Justiziako Auzitegi Nagusiaren epai baten arabera, euskarak «baztertu» egiten ditu biztanle gehienak, eta «kaltegarria» da garapen kultural orokorrerako eta gizaki ororentzat. Ignacio Merino Zalba epaileak idatzirik epaian ziurtatzen denez, «inork ez du eskatzen ezta trabak jartzen ere euskaraz hitz egiteko edo irratiaren bidez zabaltzeko».

«Euskarak baztertu egiten du»

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Orain atera berri den epaia 1990ean Nafarroako Gobernuak irratiari eman beharreko lizentziei buruz lortutako akordioaren aurka 'Iruñeko Komunikabideak S.A.' enpresak —Euskalerrria Irratiaren jabeak— paratu zuen errekursoarena izan da. Jakina denez ez zen euskal irratiendako lizentziarik izan orduan, eta horrek haserre bizia sortu zuen euskaltzaleen artean. Orduz geroztik Nafarroan entzuten diren irrati pribatu orok kendu egin dituzte, gutxinaka, euskarazko irratsaioak, eta Iruñean, kasu, soilik Euskalerrria Irratia ari da bertatik euskaraz emititzen. Iruñeko bi lizentziak Madrildo 'Radio Blanca S.A.' eta 'Compañía Navarra de Radiodifusión S.A.' enpresei eman zitzaizkien, eta hortaz, 'Iruñeko Komunikabideak S.A.' enpresak aurkeztu errekurtsioa. Bi ardatz izan zituen protestak: alde batetik, bi lizentziak aipatu enpresei emateko arrazoiak garbi ez zeudela, eta bestetik, euskararen aurka zegoen bazterketa.

Lehendabizikoari dagokionez, azaldu behar dira aurretik zeintzuk izan ziren Nafarroako Gobernuak lizentziak emateko azpimarratu zituen baldintzak.

1990eko otsailaren 15eko deialdiak, 4. artikuluan, zera zioen: «(...) kontuan hartuko dira bereziki interes orokorreko edo helburu hezitzaile eta kulturalak dituzten irratsaioak baliabide propioekin egiteko asmoa duten proiektuak. Halaber, positibotzat joko da Nafarroako ondare his-

toriko, kultural eta linguistikoak bultzatuko dituztenak».

Iruñeko bi lizentziak eskuratu zituzten bi irratiak, baina, ez zuten 'baliabide propioak' —biak Espainiako kate nagusien barruan zeudelako—, eta ondare historiko, kultural edo linguistikoak bultzatzeko ahalegin berezi-

rik egiteko asmorik ez zuten inondik azaldu. Hau da, hasierako asmoetatik urrun samar zeuden biak. Hori dela eta, 'Iruñeko Komunikabideak S.A.' enpresaren etengabeko ahalegina izan da erabakia hartzeko erabili ziren argudioen berri izatea. Lizentziak eman eta bi astera orduko

PUNUZ PUNTU

Pitxi zenbait

Epaileak hainbat iritzi jaulkitzen ditu euskara eta interes kulturalari buruz, eta horiek sortuko dute, hain zuzen, polemikarik handiena. Hona hemen pasarte esanguratsuenak:

- «(...) interes kultural orokorra zaindu nahi da, eta honek ez du muga herriko plazan, edo bere elizdorrean, ez eta lurralde bakar batean, baino munduko kultura orokorrean, nazioaren eta lurraldearenean, eta azken honetan baloratuko da berarengatik egin daitekeena (...).»
- «Kultur ikuspuntutik zentzugabekeria da pentsatzea bertakoei bertan gertatzen dena soilik interesatzen zaiela, hori ez baita horrela, kultura kosmopolitismoaren eskutik datorrelako eta kontrakoa gizakiaren atzerapausoa delako, hitzaren zentzu zabalenean».
- «(...) hizkuntza horrek [euskarak] duen balioa ukatu ezin baldin bada ere, besteek dutena ere ezin da ukatu eta, beraz, euskara hutsezko programazioa gizakien eta orokortasunaren garapen kulturalerako kaltegarritzat jo liteke (...).»
- «Ez da euskara baztertzeko beste hizkuntzen onerako eta bere kalterako, inork ez baitu ez eskatzen ez traba jartzen hitz egiteko edo irrati zabaltzeko, ez bata ez besteak; jakina, hori eskaeraren arabera etorriko da, eta eskaera hori ezin daiteke oso handia izan, kontuan harturik zonako —eremu mistoa edo erdialdekoa— euskaldun kopuru eskasa —hirian bertan jatorri duen euskaldun gabe, eta bai eremu euskaldunetik etorritakoak— eta bertan bizi den populazio kopurua —300.000 inguru—. Beraz, auzia jarri duen erakundeak [Iruñeko Komunikabideak, SA] lortu nahi duena kontrakoa da hain zuzen, hau da, baztertzaila da bizilagun gehienentzat gutxiengo batekiko eta beste hizkuntzekiko».

Gobernuaren Lehendakariaren kontseilaria zen Aladino Colinek Parlamentuaren aurreko agerraldian azaldu zuenez, «informazio aniztasuna eta kaudimen enpresariala» izan ziren bi irratiaren aldekorik sendoena. Azalpenok, baina, gezurtatu egingo zituen errealitateak, benetako txostena ezagutu zenean. Euskalerrria Irratiko enpresak paratutako errekurtsio bitartean bi aldiz eskatu zituen epaileak aipatu erabakia buruzko xehetasunak, baina bietan muzin egin zion Gobernuak. Ondoren UPNk hartu zuen agintea, eta Sanz lehendakariordeak epaileari igorri zion txostena. Bi foliotan, lizentzia eskuratu zuten bi enpresek ematen zuten «garantia» azpimarratu zuen Gobernuak, eta oinarrien kriterioetatik «gertuen» zeudena zirela esan. «Oso positibo iruditzen zaigu bi irratiak Nafarroan ez dauden sare nazionalen barruan egotea, horrela informazio orokorra entzun ahal izango delako, eta horrela Nafarroako errealitateak proiektzioa izango duelako Espainian». Halaber, langileei eta publizitateari buruz emandako datuak goetsi zituen Gobernuak, eta lizentzia hauen bidez ondare historiko eta kulturalak bultzatuko liratekeela esan zuen. «Hizkuntz ondarea» desagertu zen arrapostuan.

'Iruñeko Komunikabideak, S.A.-k' egindako errekurtsioan, erabakia, lehiaketaren oinarri eta baldintzen kontrakoa ezezik, Euskararen Legearen, Lorafna Legearen 9. artikulua eta Espainiako Konstituzioaren aurkako zen, euskararen presentzia eta oreka azpimarratzen duten heinean, baina epaileak arrapostutakoaren arabera, ez da inolaz ere horrelakorik. Gobernuaren akordioak «txosten franko» eragin zituela dio epaia, bi besterik izan ez baziren ere, eta argudioak «aski frogatuak eta azalduak» daudela dio.

Halaber, bigarren argudioari dagokionez, hau da, euskararen bazterketaz ari denari buruz, «horrelakorik ezertxo ere ez» dagoela dio Ignacio Merino epaileak. Iruñeko enpresak jarririk errekurtsioan azaltzen zuten euskararen presentzia ez ziurtatzea hizkuntzen arteko berdintasunaren aurkako zela, baina epaileak, hain zuzen, buelta eman dio argudioari, eta «jatorrizko euskaldunik ez duen hiri batean» euskara hutsezko informazioa ematea «gehiengoaren baztertzaila» dela dio.

Epaia haserre sortu du enpresakoen artean ez bakarrik epaiarengatik berarengatik, baita bertan erabiltzen den hizkera harroa eta argudio aldrebesengatik. «Bagenekien zaila izango zela hau aurrera ateratzea, baina nahi genuen epai serio bat, ez hau», azaldu du Mikel Bujanda Euskalerrria Irratiko zuzendariak. Egun erantzuna aztertzen ari dira elkarte barruan.

Gogoratu behar da Gobernuak iragarri duela Iruñeko bi lizentzia berri izango dituela, nahiz eta lehiaketarako datarik oraindik ez izan.

«Idazteko iritziak behar ditut»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

'Zu lehenago' Jon Alonsoren ipuina gailendu berri da Zumaiaiko Julene Azpeitia lehiaketan, 40 idazlanen artean. Hau da 'Nafarkariako' kolaboratzailea den iruindar honen bigarren sari garrantzitsua, 1991n Bilboko Lizardi saria eskuratu baitzuen. Ipuina bortizkeriaren inguruan osatua dago eta, Jonek dioenez, hel-

ditu, ea gustatzen zaizkien epaimahaikoei, baina gero, ibiliaren ibilian, konturatzen zara prozesua bestelakoa dela, pentsatu egin behar dela epaimahai hipotetiko bati gustatuko zaion zerbait.

EGUNKARIA.— Zerbait badaukazu, beraz, argitaletxera eramateko.

ALONSO.— Bai, baditut gauza batzuk. Esate batera, nobela bat jadanik bidalia daukat ar-

saria jasotzeak ere ez du ezer esan nahi, dezente lan gehiago dagoela ez bada. Orduan, garai batean pentsatzen nuen: 'nik idatzi egiten diat, gustatzen zaidalako, eta ez zaidak horrenbeste inporta argitaratzen dudan edo ez'. Jakina, idaztearekin bizitzea zaila da, baina gutxienez idatzi gehi horren inguruan sortzen diren hainbat gauzarekin bizi nahi baldin baduzu, horretarako guztiz de-

ALONSO.— Hori da Pamielak gauzak ongi egiten dituen seinalea. Badauka ongi irabazitako ospea, ez bakarrik Euskal Herrian, eta horren ondorioz lan asko jasotzen dituzte. Ez da kasualitatea, lan baten fruitua baizik.

EGUNKARIA.— Idazteko behar duzu akuiluren bat —aiur txarra, gogo bizia—?

ALONSO.— Nik bestelako estimulorik banu, askoz gehiago idatziko nuke. Ispilua behar dut, iritziak, norbaitek esatea gustatu zaion edo ez. Eta idatzitako horretatik zerbait ateratzen denean, horrek ematen dizu gasolina aurrera jarraitzeko. Elkarrizketa bat bezalako da. Zuk ezin diozu elkarrizketa egin pareta bati, erantzuten duen bati baizik. Hori

«Idaztea ofizio bat da, eta ikasi egiten da, eredu bidez. Horregatik, inoiz ez da nahikoa irakurtzen».

da literatura. Badago jendea esaten duena: 'literatura norberaren jarduna da, zerkusirik ez du irakurlearekin, eta guztiz pertsonala da...'. Hori iruditzen zait kontu ikaragarria, eta ez dut inondik inora sinisten.

EGUNKARIA.— Asko irakurtzen duzu, erreferentzia handiak behar dituzu, edo idazteko barrua da erreferentzia nagusia?

ALONSO.— Erreferentziak ezinbestekoak dira. Nik betidanik irakurri izan dut, baina literatur kontuak ez dira inon irakasten. Hau da, nere moduz ikasi dut dena. Baina ikasi dudana honetan badakit erreferentzia batzuk ezinbestekoak direla, zeureganatuta izatea oso garrantzitsua dela. Sine-tsita nago idaztea ofizio bat dela, eta ikasi egiten dela, eredu bidez. Horregatik, inoiz ez da nahikoa irakurtzen.

Jon
Alonso

IDAZLEA



SOSLAIA

Parlamentuko itzultzailea

Egun Nafarroako Parlamentuko itzultzailea, 'TMEO-n' egindako 'Euskaldun despistatuaren kronika' sailean eta Nafarkariako zutabetan ironia eta kritika jarioka aritu da maiz Jon Alonso. Bortizkeriaren inguruko ipuin batekin irabazi du Zumaiaiko saria, eta nobela bat izateaz gain, idaztearen ekintzari buruzko saio bat prest du, argitartu nahian. Cortazar, Poe, Benedetti, Carver edo Mirande bezalako idazleak gogoak dituen honek laudatu egiten du itzulpengintza lana, «ezinbestekoa» delako, baina buletin ofizialarekin aparteko lana egiterik ez dagoela dio. «Horrek balioko dizu gero edozer gauza itzultzeko, baina lana da, ez besterik».



Franko idatzi arren, Jon Alonsok ez du egundaino libururik argitaratu.

JOXE LACALLE

burua da aztertzea indarkeria eta eguneroko bizitza elkar-tzen direnean zer-nolako harremana sortzen den.

EGUNKARIA.— Sari askotara aurkeztua zara. Zer bilatzen duzu horretan, zergatik sariak?

JON ALONSO.— Dirua da arrazoietako bat, eta bestea da argitaletxe batera joateko zerbait eraman behar duzula. Orain ez da duela hamar urte bezala, lau kaxatxo idatziz gero argitaletxe batera joan eta zerbait ateratzeko aukera zenuenean. Orain gero eta jende gehiagok idazten du, kalitate exigentziak daude, eta sariren bat lortuz gero, horrek lagun dezake argitaletxe batera joateko eta zure lana aurkezteko. Horetaz landa, sariek badute alderdi txar bat. Hasieran nork bere gustoko gauzak egiten

gitaletxe batera, baina ez dut erantzunik jaso. Eta erantzunik edo laguntzarik ez badaukazu, oso zaila da jakiten zer moduz dagoen, nondik hobetu daitekeen eta... Horretaz gain, oraintxe badut lan bat, saiakera modukoa, eta saiaturiko naiz ateratzen. Baina ateratzeko behar da beste inoren erantzuna, iritziak alderatu. Horren falta sumatzen dut nik.

EGUNKARIA.— Komunikabide frankotan —'Korrok-en', 'Argia-n', 'TMEO-n', Euskal Herria Irratian, EGUNKARIA— aritu zara, gehienetan zutabegile gisa. Iruditzen zaizu idazlea izateko zerbait argitaratu behar dela derrigorrez?

ALONSO.— Nik orain arte ez dut horrelako kezka handirik izan. Nik idatzi izan dut, besterik gabe, eta ipuin batekin

rrigorrezkoa da argitaratzea. Eta hori nahi izan gabe ere, une batean esan dezakezu: 'tira, horrenbesteko bidea egin baldin badut, nahiko nitek, bai, nere txorikaka ere botatzea'.

EGUNKARIA.— Horretarako harremanak garrantzitsuak dira?

ALONSO.— Bai, eta akaso euskal literatura ez da makurra izango alde horretatik. Nik badakit Pamielak 700 original inguru jaso zituela iaz. Eta gauzek horrelako tamaina hartzen dutenean, beti badago taldetxo bat, originalak aukeratzen dituen. Harremanak garrantzitsuak dira orduan.

EGUNKARIA.— Eta zer iruditzen zaizu Pamiela, Durango-ko Azokari begira, akaso liburu gehien plazaratu duen argitaletxe izatea?

NISKIJATOR

© Zaldi Eroak

